



bidegileak



Jose Olaizola (1883-1969)


Egilea:

XABIER ARZELUS



uskal musika, zer ote da? Oso definizio mamitsu eta zailtara jo gabe, aditu askoren ustez, Jose Olaizola konpositore hernaniarrak egiten zuen musika izango litzateke, hain zuzen ere, delako «euskal» musika hori. Eta ez bakarrik bere musikaren hitzak euskaraz idazten zituelako, baita euskaldunok «gurea» bezala hartu dugulako ere. Eta edozein musikarirentzat, zer ederragorik bere musika bere herriaren musika bilakatzea baino?

Hauxe izan zen, hain zuzen ere, Jose Olaizolari gertatu zitzaiona. Hain da honela non gaur bertan «herriarenak» bezala —eta, beraz, anonimoak— en-



Jose Olaizola (1883-1969)

tzuten ditugun kanta eta musika asko Jose Olaizola hernaniarrak sortu zituen. Eta, aldi berean, «herri» anonimoak sortuta diren beste hainbat doinu eta kanta Hernaniko musikariarenak direla uste izan dugu. Eta berdin gertatzen da Olaizolak harmonizatu-tako beste zenbait doinu «herritarren» kasuan. Olaizolaren obraren euskalduntasuna hain dago herriarekin bat egina non, kasu askotan, Olaizolaren eta Herriaren arteko sormenaren muga oso sotila den, aipatu muga hori sarritan desagertzen delarik.

Bere bizitzaren giltzarriak

Jose Olaizola Gabarain Hernanin jaio zen, 1883.eko urtarilaren 27an, eta 1969. urteko ekainaren 8an hil zen Donostian. Gerra Zibilaren ondorioz, Jose Olaizolak hamazazpi urte eman behar izan zituen Hego Euskal Herritik kanpo, Estatu frantziarreko Gironde-n. Azkenik, 1953an, Donostiara itzuli ahal izan zen, eta bertan bizi izan zen, 1969an hil zen arte.

Joseren gurasoak Manuel (Domingo) Olaizola Telletxea Arano —Nafarroako herri honetako baitzen— eta Usurbilgo Martina Gabarain Mujika izan ziren. Bikoteak sei seme-alaba

izan zituen: Manuel, Petronila, Juan Bautista, Jose, Felix eta Gabriel. Oso txikitandik, haurrok musika giroa bizi izan zuten: aita ogibidez arotza bazen ere, musikarako nolabaiteko zaletasuna ere azaldu zuen, 1865ean Hernaniko Bolondres Liberalen bandako musikajole egin baitzen. Amak inolako musika tresnarik jotzen ez bazuen ere, seme-alabei haurtzaroan kantatutako abesti batzuk inpirazio iturri bilakatu zitzaizkion Joseri geroago. Joseren Juan eta Felix anaiek, bestalde, txistua jotzen zuten, eta anaiarik txikiena izango zen Gabriel, bere aldetik, Italian zehar kantatzen aritu zen Milango Scala famatuan, besteak beste.



Jose Olaizolaren jaiotetxean, Hernaniko Kardaberaz kalean, plaka bat jarri zuten 1983an

Olaizolatarrak 1903an Hernanitik Donostia-ra bizitzera pasa zirenean, herri zein etxe al-daketa oso profitagarria suertatu zitzaion Jo-seri, garai hartan hogeitau urte bete berriak zituen gazteak errazago segitu ahal izan baitzituen Gipuzkoako hiriburuan dagoeneko egiten ari zen musika ikasketak. Aurreko ur-tetan, Hernaniko San Juan Bataiatzailearen elizan, Jose organojole izan zen, Manuel Zen-doia bere irakaslearen eskutik. Eta Hernanin ahal zuen guztia ikasi zuenean, Donostiako Kontserbatoriora jo zuen eta hiriburuko eli-zetan organojole zirenekin harremanetan ja-

rri zen berehala. Donostian bere ikasketen maila hobetzeaz gain, musika irakasle bilaka-tu zen Jose, besteak beste solfeo, armonia, konposaketa, pianoa eta organoa irakasten zituelarik. Gazte hernaniarra berehala egoki-tu zitzaion Donostiako bizimoduari, eta ez bakarrik musikaren arloan. Euskararen alde sortzen ziren ekimen guztiekin bat egin zuen eta, orokorrean, euskararen kultur alorrean buru-belarri murgildu zen. Hain zuzen ere, Or-feon Donostiarraren hastapenetan ere parte hartu zuen, bere bizitza osoan koralekiko eta abeslari taldeekiko azalduko zuen jarreraren



Arenas familiak oraindik Hendaian duen «Izar On» etxean, «Agur izar ori» konposatu zuen Josek, Guadalupeko Amaren omenez

lehen agergarri. Politikan ere parte hartu zuen Josek: 1920an EAJ-PNVko zinegotzi aukeratu zuten, Donostiako «Muelle» edo Kaiako hauteskunde-barrutiaren ordezkari eta, Primo de Riveraren Diktadura amaitu eta 1931n eginiko hauteskundeetan, Jose Donostiako udalean PNVko zinegotzi aukeratu zuten berriro. Beraz, bi legealditan izan zen Olaizola EAJ-PNVko zinegotzi, eta biotan «Fomento»ko (gaurko Kultura) arduradun politikoa izan zen.

Errepublikaren aurkako matxinatuek 1936an Gerra zibila piztu zutenean, Olaizolak, bere familiarekin, Donostia utzi eta Joseren amaren familiak Gironde aldeko Cissac-Médoc izeneko herrixkan zuen etxean aurkitu zuen

babesa. Erbestea uste baino gehiago luzatuko zen, hamazazpi urte iraun baitzuen. Gainera, Bigarren Gerra Mundialaren garai latzak ere ezagutu zituzten Olaizolatarrek, Cissac-Médoc-eko herria soldadu naziek kontrolatutako eskualdean baitzegoen. Joseren familiak duela urte gutxi jakin du Josek Girondeko «Erresistentzian» parte hartu zuela eta, gainera, *Le Coq (Oilarra)* goitizenpean egin zuela, hain zuzen ere Cissac-Médoc-eko inguruetan alemanek lurrera botatako pilotu aliatuak laguntzeko lanetan. Lan haiek isiltasun eta sekretu osoan egin zituen Josek eta, aipatu bezala, urte luzez ez zuen familiak Joseren borroka isil bezain ausarta hartaz berririk izan.

Gerra zibila eta Bigarren gerra mundiala ez ziren gauza izan Jose musikaren alorretik aldentzeko. Erbeste luzearen hasieran, Jose Antonio Agirre lehendakariak euskal dantzak eta kantak atzerrian ezagutarazteko pentsatu zuen *Eresoinka* gauzatzen saiatu ziren Jose eta Gabriel Olaizola, proiektua bultzatzeko osatu zen lan taldean aktiboki parte hartuz. Ondoren, Cissac-Médoc-en, herritik gertu zegoen Bordeleko musikaren munduarekin harremanetan jarri zen Jose eta bertoko musikazaleek laster deitu zuten hernaniarra



«Izar On» etxeko egongelan lan egin zuen Olaizolak

Girondoko hiriburuko musika ekimenetan parte hartzera. Gainera, erbesteko bere etxean ere, Josek musika konposatzeari ekin zion. Garai hartakoak dira, besteak beste, *Sorgiñeta* eta *Urte leloak* obrak. Azken honetan, Euskal Herritik kanpo urtaro bakoitzak bere izpirituan sortutako sentimenduak islatzen ditu Josek. Bestalde, Olaizolaren obrarik ezagunena eta maiteenetako den *Agur izar ori* ere Hego Euskal Herritik konposatu zuen, Hendaian Arenas familiak zuen —eta oraindik duen— etxean eta Jaizkibel mendia aurrez aurre zuelarik, Iparragirrek *Ara nun di-ran* obraren kasuan egin zuen bezala.



Kaperotxipi marrazkilariak eginiko erretratu bikaina

Oso lan zabala

Atzeritik 1953an itzuli zenetik 1969an hil zen arte, Jose Olaizolak oso lan sakon eta zabala burutu zuen musikaren munduan eta, hain merezi zituen herriaren omenaldiak ere ezagutzeaz gain, bere obrarik landuenak eszenategitan eta modurik landuenean ikusteko aukera izan zuen.

Jose Olaizola batez ere organo-jole bezala ezaguna bada ere —organoa musika tresnen errege izanik— ez zien Euskal Herriko musika tresna xumeei muzin egin. Are gehiago, bertoko musika tresnen ahalmen guztiak aztertzen eta hedatzen saiatu zen. Txistuaren kasuan —aurrerago aztertuko dugun bezala— Ansorena familiako txistulariekin batera lan egin zuen, batez ere. Agian Olaizolatarren artean izandako txistulariek piztu zuten Joserengan gure tresna hori sakonean aztertzeko asmoa. Izan ere, Josek txistua jotzen ikasi eta Manuel bere anaiaren ordeztasun jo izan zuen gaztetan. Txistua maitatzeaz gain, Josek alboka ere asko maite izan zuen. Bere aburuz, alboka zen, hain zuzen ere, euskal musika tresnarik *jatorrizkoena*. Izan ere, 1932. urtean Donostian San Telmoko museoren inauguraziorako, garai hartan Gipuzkoan aurkitu zuen albokari bakarra ekarri zuen Olaizolak, baita honen alboka bat Museora-ko erosi ere. Gainera, bere konposaketa batzuetan Olaizolak albokaren hotsa beste musika tresna batzuen bidez —oboeren bidez,

gehienetan— gogoratu zuen, musikaldietarako albokariren bat aurkitzea oso zaila zela baitzekien. 1964an —Josek 81 urteko adina zuenean, beraz!— konpositoreak kantu lehiaketa bat irabazi zuen eta, garaile izan zen *Mendietan* bere obran alboka ere sartu zuen Olaizolak. Honen berri izaterakoan, Galdakaoko *Andra Mari* Folklore Taldeak eskerronez betetako gutun bat igorri zion Olaizolari «alboka berpiztu arazi bait duzu, desagertzeaz dagoen garai honetan».



Musikarako gaitasuna

Irakasleek berehala ikusi zuten Josek oso dohain handiak zituela Arte mundurako: musika maitatzeaz gain, poesia ere maite zuen. Eta Jose gazteak laster azaldu zuen poesia eta musika uztartzeko zuen gaitasuna. Berak eginiko euskal poesia, euskal hitz horiek bezain «euskalduna» zen musikaz edertzeari ekin zion. Joserren semeetako bat den Imanolek bere aitari buruz idatzitako liburu ezin hobean dioen bezala, euskal doinuak konposatzerakoan bere aitak oso kasu bakanetan erabili zituen bereak ez ziren hitzak. Berak idatzitako hitzak musikatzeko zituen Olaizolak, eta idazle huts bezala ere ipuin-sariketarak ere irabazi zituen, besteak beste *Euskal-Esna* aldizkariak 1909an antolatu zuena.

Honez gain eta aurrerago aztertuko dugun bezala, Jose Olaizolak euskararen laguntzarako balio zuten beste kultur ekimenen partaide ere izan zen. Hauen artean interesgarrietako bat Antzertia izan zen, alor hau ere bere inspirazioaren bidez indartu zuen.

Gaztetandik, intelektual dotorearen itxura izan zuen Josek


Euskal Kulturaren eragile

ose Olaizola 1883an jaio zenean, Euskal Foruen azken aztarnak urte gutxi lehenago galduak ziren eta, ondorioz, Euskal Herriak garai hartan bizi zuen egoera latza eta larria zen oso. Eta, noski, herriaren hizkuntzaren egoera ez zen hobea.


Joseren jaioterrian eta berehala *berea* egingo zuen Donostian oso nabariak ziren azken karlistadan sufritutako zauriak. Olaizolarren kasuan, libralen alde begirale edo zelatari lanetan aritu zen Manuel Olaizola Telletxea *Aranok* —Joseren aita zenak— arotz izateari utzi behar izan zion, karlistek

bota zioten tiro baten ondorioz. Sendatzean, Arano aguazil lanetan hasi zen Hernanin eta, 1903tik aurrera, atezain eta kontserje lanetan Donostiako Aurrezki Kutxan.

Gerrak sortutako zauriak ez ziren soilik pertsonalak, fisikoak edo eta materialak izan, Euskal Herria bera baitzegoen serioki zaurituta.



Josek hain «berea» zuen Donostiari eskainitako konposaketa bat.



Koru-ko Amarentzat egin zituen Josek bere lan zainduenak

Hernaniko Eskola Publikoan, Jose Olaizola gaztetxoak bete-betean bizi eta sufritu behar izan zuen euskararen aurka asmatutako hezkuntza, eta euskaraz egiteagatik maisuak erabilitako *eraztunaren* sistema ere ezagutu zuen. Hernanin, ia biztanle guztiak ziren euskaldunak eta euskararen defendatzaileak: liberalak ere —Olaizola familiaren kasuan bezala— karlistak bezain euskaltzaleak ziren. Are gehiago: euskal liberalak foruzaleak ere baziren hein handi batez, eta Madrilgo Gobernu liberalak Foruak erabat suntsitu zitue-



Jose, 1948an Miarritzen eginiko Euskal Kongresuan

nean erabaki zital horren aurka azaldu ziren euskal *beltzak*.

Beraz, 1903an familia osoa Hernanitik Donostiara aldatu zenean, bere euskal izateari eutsi zioten Olaizolatarrek eta Jose, lehen Hernanin bezala, hiriburuan ere euskararen alde ari ziren erakunde eta pertsona guztiekin bat egin zuen. Euskara *arloteen hizkuntza-rekin* identifikatzeko saiatzen zirenen aurrean, Donostiako *intelligentsiak* euskararen maila igoarazteari ekin zion, bakoitzak bere lan alorrean euskara landu eta erabiltzeko konpromisoa hartzen zuela.

XIX. mendeko azken hamarkadan, esaterako, *Euskal Batzarre* eta *Easo* izeneko elkarteek bat egin eta *Sociedad de Bellas Artes* zeritzana



Jose Olaizola, Mayi Elissaguek, Victor Garitaonaindiak, Polikarpo Larrañagak eta beste lagun batek osatutako taldean

osatu zuten. Berehala Musika Akademia antolatu zuten eta, musika suspertzeaz gain, aipatu elkarteak euskararekiko eta euskal kulturarekiko zuen bere kezka bideratu zuen. Ondorioz, 1899an *Real Sociedad Bascongada de Amigos del País* (R.S.B.A.P.) erakundea indartzeko erabakia hartu zuen. Olaizola Musika Akademiako ikasle izan zen lau urtez —1899an hasita— klaseak hartzeko Hernanitik Donostiarako bidea sarritan oinez egin behar bazuen ere, garai hartan ez baitzegoen oraindik tranbia zerbitzurik.

Donostian euskal kulturaren alde ari zirenek pozik hartu zuten Jose Olaizola gazteak Arte desberdinetan lan egiteko azaldu zuen grina, euskal munduan idazleak, poetak eta musikariak ez baitziren soberan. XX. mendeko bigarren hamarkadan, Udalak antolatutako *Euskal Astea* —edo, hobeto esateko, Primo de Riveraren diktadurapeko garai hartan gazte-



Jose, «Euskal Esnaleak» erakundeak Arturo Campioni eskeinitako omenaldian

lera hutsean zioten *Semana Vasca*— lan eremu egokia bilakatu zen Olaizolarentzat, laster eskatu baitzizkioten Astearen egitarau zabalerako libretoak zein musika konposaketak, batez ere 1928an *Saski Naski* ikuskizun folklorikoa eta musikala antolatu zenetik aurrera. *Saski Naski*-k Euskal Herriko mugak gainditu eta Parisen ere bere ikuskizuna aurkeztu zuen eta *Champs Elisées* izeneko antzokian arrakasta itzela lortu zuen. Hurrengo urteetan eta Gerra Zibila hasi arte *Saski Naski*k euskal kultura leku askotara hedatu zuen. *Saski Naski*-ren esperientzia oso baliagarria izango zitzaion gerra giro latzean laster arituko zen *Eresoinka* folklore taldeari.

Jose Olaizola eta Arturo Campion-en artean zegoen laguntasun irmoa ere azpimarratzekoa da. Campion euskaltzale handiak musika asko maite zuenez, Olaizola, behin baino gehiagotan, pertsonaia nafarra Donostiako Ategorrietako bere etxean bisitatu eta Campionen pianoan jotzen zuen. Gainera, Campionek berehala egin zuen bat Donostiako euskal giroarekin: Gipuzkoako hiriburuan urtero udaberritik abendura arte egoten zenez, bertako euskaltzaleekin biltzen zen eta, 1908an «Euskal Esnalea» erakundea antolatu zutenean, Campion aukeratu zuten presidente. Jose Olaizola, bera ere, «euskal esnale» izan zen eta, 1929an, erakundearen presidente-ordeko izendatu zuten —Jose de Eizagirrerekin batera— presidentea berriro ere Campion zelarik.

Foru Aldundiaren diru-laguntza

Aipatu bezala, Donostiara heldu zeneko, Joxe Olaizola musika alorrean oso aditua zen eta, 1899. urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiak beka edo diru-laguntza ere eman zion, Bellas Artes-eko Musika Akademian Donostian lau urtez ikasteko. Akademia honek oso eragin handia izan zuen Gipuzkoa osoko musika munduan eta, bere momenturik onenean, ia laurehun ikasle bildu zituen. Bertoko irakasleek berehala ikusi zuten Olaizola hernaniarrak musikarako zuen balioa eta Akademian irakasle zirenek —besteak beste Bonifazio Etxeberria, German Zendoia, Jose Mari Etxeberria, Klau-

dio Jauregi, Gregorio Anton del Saz, Anjel Saiz...— bakoitzak zekien guztia irakatsi zion Joseri.

Olaizolak organoa jotzeko zuen gaitasuna eta zaletasuna ikusita, musika tresna eder honetan maisu zirenek ere bere ardurapean hartu zuten gazte hernaniarra. 1902an —Josexek 19 urte zituenean, beraz— Ildefonso Lizarriturri organistak San Bizenteko *Cavaillé-Coll* organoaren sekretuak irakatsi zizkion eta, 1903an Donostiako portuan San Pedroko eliza zabaldu zutenean, Jose organista




Goiko irudian, Jose Luis Erkizia tenorea dugu «maisuaeren entzule»

Donostiako Santa Mariako «Cavaillé-Coll» organoan bizi izan zituen Olaizolak bere unerik inspiratuenak



gaztea bertan jotzen hasi zen. Garai hartan, ordea —gaur oraindik gertatzen den bezala— Gipuzkoako organorik onena Santa Mariako *Cavaillé-Coll* organoa zen eta seguru gara Jose gaztearen ametsik handiena Santa Marian jotzea izango zela. Bere amets hori uste baino lehenago bete ahal izan zuen: Santa Mariako Santesteban organistak bere lana bete ezin zuen bakoitzean, Jose gaztea Santa Mariako organo miresgarrian bere ordeztotzera deitzen hasi zen. Gainera, hurrengo urteetan, Josek Hernaniko Amezuak eraikitako bi organo inauguratu zituen: bata, Aiako San Estebaneko elizan eta, bestea, Oviedoko Seminarioan.



Juan de Zabalo *Txikik* eginiko Joseren karikatura bikaina

Zorioneko 1906a

XX. mendearen hasiera ezin hobeia izan zen Jose Olaizolarentzat. Alde batetik, 1903an familia osoa Hernanitik Donostiara aldatu zenean, bere asti osoa musikari eskaintzeko aukera izan zuen Joxek. Eta musika irakasle egin zenean, berehala bere emazte izango zen Teresa Etxeberria izeneko ikasle donostiarraz maitemindu zen Jose. 1906an, bikotea ezkondu egin zen. Eta, ezkondu eta hilabete gutxi batzuk geroago, 1906. urteak beste berri zoriontsu bat ekarri zion Joseri: 1906ko urriaren 11n, Santa Mariako organista postua dagoeneko berea zela jakin zuen Jose ezkonberriak.

Jose zenaren Imanol bere semeak dioenez, Santa Mariako organo-jole postua lortzea hain izan zen bere aitarentzat garrantzitsua non, aurrerakoan eta urtez urte, *Urriaren 11*ko eguna oso egun berezia izan zen familia osoarentzat, aipatu egunaren urtebetetze bakoitza bereziki ospatu baitzuen Josek. Olaizolak oso balio handia ematen zion Santa Marian organojole izateko gainditu behar izan zuen lehia irabazteari, kargu hori lortzeko beste bi organista bikainen lana —Buena-ventura Zapiainena eta Juan Mari Ugarterena, hain zuzen ere— hobetu behar izan baitzuen.

Olaizolaren eta Santa Mariako *Cavaillé-Coll*en arteko maitasun historiak Jose 1969an hil zen arte iraun zuen.



Musikari talde honetan Pablo Sorozabal, Nemesio Otaño, Aita Donostia eta Jesus Guridi ikusten ditugu, besteak beste, Jose Olaizolarekin

Omenaldia Cissac-Médoc-en

Jose Olaizolak eta bere familiak Cissac-Médoc-eko herrian utzitako oroimena hain izan zen handia non, duela pare bat urte, bertokoek omenaldia eskaini zioten Jose Olaizolaren oroitzapenari, Joserren familiartekoak bertan egon zirelarik. Musikagile bezala eta Erresistentziako *Le Coq* bezala oroitzen zuten Joseri bi eguneko omenaldia eskaini zion Girondoko herriak eta, omenaldiak iraun zuen artean, mastan ikurrinak *le drapeau* «sakratuaren» lekua hartu zuelarik.

Omenaldian Miarritzeko *Itsasoa* koralak abestutako euskal kantak ez ziren izan Cissaceko herriak entzun zituen lehenak. 1936. urteko Gabonetan, Josek Girondoko eskualdean erbestean bizi ziren euskaldunak bildu eta elizan euskal eta Gabon kantak abestu zituzten, bertoko apaiza erabat hunkituta eta begiak bustirik entzun zituela. Cissac-ekoen-tzat gauza harrigarria eta ia ulertezina izan zitzaien propagandaren arabera *eliz-erretzai-leak* eta *gorriak* omen ziren euskaldun haiek Gabon kantak hain modu hunkigarrian kantatzen entzutea.

Apezpikuaren «baimena»

Hego Euskal Herrira itzuli ondoren bi urte luzez egon behar izan zuen Olaizolak Santa Mariako bere *Cavaillé-Colla* ukitu gabe. Jose-ren egoera hain zen eskubide guztien aurka-koa non 1955ean garai hartan Gipuzkoan apezpiku zen Jaime Font i Andreu-k Jose Olaizolari organoan berriro aritzeko *baimena* eman zion, antza denez garai hartan oso indar handia zuen Javier Lauzirika apezpiku frankistak hala eskatuta. Estatu espainiarrera itzuli zenetik urtero lauzpabost urtez Asturiaseko Covadongan emaniko ikastaroetan ezagutu zuen, hain zuzen ere, Lauzirika. Olaizolak argi azaldu zizkion elizgizonari Eliza ofizialak bere aurka eginikoak. *Nazional-katolikotasuneko* eliz buruek bereganako izan zuten joera ezkorrak asko mindu zuen Jose —Santa Mariako erretore zen don Segundo Garaialderen portaerak, bereziki— lege kanonikoen arabera Santa Mariako organojole lana berea baitzen. Bere kargua berreskuratzeko Josek eginiko ahaleginetan, bere alde ere egin zuten pertsona batzuen laguntza izan zuen, besteak beste gero Santa Mariakoa izan zen Jose Elgarresta Hernaniko erretoreak. Olaizolak hartutako baimena txalotzeaz gain, Santa Mariako organojolearen kargua Joserena eta ez beste inorena zela, aldarrikatu zuen Elgarrestak.

Inprobisatzaile harrigarria

Agian bere familian Olaizolatarrek mahai ondoko giroan hain maite zituzten bertso saioen ondorioz —hiru osaba bertsolari ziren, Gabaraindarrak hirurok— Joseren izpirituan oso sartuta geratu zen betiko inprobisaziorako gaitasuna. Izan ere, organoan milaka ordu eman bazituen ere oso gutxi dira Josek pentagraman idatzitako organo obrak, bere inprobisazio gehienak airean galdu zirelarik, tamalez. Lerro hauon idazleak ere ondo gogoratzen du, Santa Mariako elizkizunetara biltzen ginenok eliza ez genuela elizkizuna bukatu bezain aguro uzten, Jose maisuaren momenturik inspiratuenak elizkizunak amaitzerakoan egiten zituen inprobisazioak zirela baikenekien. Gogoan ditut oraindik, esaterako, *Agur Jesusen Ama* kanta ezagunari Josek eransten zizkion *hornidura* zirraragarriak.



Josek atzerrian erabili zuen «Pleyel» pianoa, orain «Eresbil»ek gordetzen duena

Inprobisazioa dela eta, Imanol Olaizolak bere aitari buruzko pasadizo bitxia kontatzen du: 60. hamarkadaren hasieran, Imanol bere aita-
ren bila Santa Mariara joan zen egun batean Jose Olaizola «maisuba» non eta eliza ondo-
ko Trinitadeko plazan hastear zegoen «jazz» musikaldi bateko entzule aurkitu zuen. Ba
ote dago «jazz» musika baino inprobisazio eremu aberatsagorik?

Musika konposatzerakoan, bazuen gainera Josek dohain berezi bat: berak asmatutako doinu askoren sustraiak hain ziren *euskal* erroak non euskal musika berria egiteko gai-
tasuna izan zuen. Maiz, Josek sortutako doi-
nuak *herriarenak* edo eta *anonimoak* direla esan ohi da.

Olaizolak sortzen zuen musika *euskal musika* zela, zioten bere musika entzuten zuten gehienek. Musikan adituak zirenek —eta gaur egun direnek— diotenez, Olaizola *musi-
karien artean euskaldunena* izan zen, bere he-
rriaren izpiritua musikan islatzeko gaitasuna izan baitzuen. Eta ez soilik musikaren bidez bakarrik: sarritan, berak konposatutako obren hitzak —libretoak, esaterako— bere-
ak ziren, musikari bezala sortutako poesia hitz sentikorrekin uztartzen zituelarik. Nola-
bait esateko, euskal musika eta euskal hitzak sortzeko gaitasuna izan zuen Jose Olaizola poeta euskaldunak.

«Urte leloak»en hasierako oharrak


Jose Antonio Arana Martijak Jose Olaizolak *euskal musika* sortzeko erabiltzen zuen *for-
mula* edo *giltza* ezagutu nahi izan zuen. Olai-
zolari igorritako gutun luze batean, zera zioen Arana Martijak, argia baino argiagoa zegoela euskaldunek Olaizolaren musikarekin bat egi-
ten zutela eta aho batez ziotela Olaizolaren musika benetako *euskal musika* zela. «Zein da, Olaizola jauna, euskal musika sortzera-
koan erabiltzen duzun formula?», galdetzen zion Aranak 1966an. «Formula delako horren giltza azalduko al didazu, mesedez?»



Bigar arte? Jajai! umoreko lanaren azala

Oleskari zarra

emen idatzitakoaren adibiderik zuzena *Oleskari zarra* izeneko obra izan zen. Lehenengo libretoa 1916koa izanik, urte luzez etenik gabe landu zuen Josek bere obra hau, hasierako lana opera bilakatu arte. Hasierako libretoak Donostiako Udalak antolatutako lehiaketa bat irabazi zuen eta, urteak pasa ahala, obraren libretoa zein musika edertu zituen Olaizolak. 1918an, esaterako, lehenengo libretoan oinarritutako *Oleskari Zarra* antzeztu zuten Oñatin ospatutako Euskal Kongresuan, urte bat geroago Donostiako Antzoki Zaharrean berriro antzeztu zutelarik. Gerra Zibila hasi arte sarri-



Aiako San Estebaneko «Amezua» organoa Josek inauguratu zuen

tan aurkeztu zuten aipatu obra eta, gerra ostean —1956an, hain zuzen ere— *Oleskari Zarra* Donostiako Victoria Eugenia antzokian eman zuten. Musika kritikari guztiek Olaizolaren opera txalotu zuten eta, kritikari horietako batek —Ordoiz izenekoa, hain zuzen ere— hitz laburrez eta zehaztasun handiz definitu zuen Olaizolaren nortasuna: «Olaizola ez da agian euskaldunik musikariena izango, baina seguru gaude musikaririk euskaldunena dela».

Oleskari Zarra obraz gain, berehala oso eza-guna egin zen *Sorgiñeta* obra sifoniko-korala konposatu zuen Olaizolak, 1960an kontzertu modura Donostian eta 1961ean bere osotasunean —*ballet*-a barne, beraz— Hernaniko herriko plazan estreinatu zutena. Euskal Kulturak eta euskarak bizi izan dituen garai ilunen adierazgarri, hortxe dugu, esaterako, obra honen izenaren inguruan sortutako pasadizo adierazgarria: Madrilen zegoen *Registro Nacional de Autores* izenekoan Olaizolaren aipatu obra erregistratu zutenean, obraren

izena bi hitzetan banatu eta *Sor Giñeta* bezala erregistratu zuten, hain zuzen ere. Zein egia den ezjakintasuna ausartegia dela! Ala nahita egingo ote zuten delako *akats* hori?


Bere eguneroko bizitzan eta Naturan bizi zituen esperientziak, inspirazio iturri itzuli zitzaizkion Joseri. Aipatu *Oleskari Zarraren* kasuan, esate baterako, Zestoako Aizarna



Zestoako Aizarnako Santa Engraziako kanpai hotsek inspiratu zioten Olaizolari «Oleskari zarra»

auzotegiaren gaineko Santa Engraziko ermitaren kanpai hotsak izan ziren Joseren inspirazioa elikatu zutenak. Aiako inguruetan Olaizolak bere lagunekin eginiko txango batean entzundako kanpai hotsak nahikoa izan ziren Jose inspiratzeko eta sentitzen zuena maisuki islatzeko. Francisco Escudero euskal musikari famatuak *Oleskari Zarraren* 1956ko «estrenaldia» entzun ondoren azaldu zuen iritzia oso adierazgarria iruditzen zaigu Jose Olaizolaren balioa adierazteko: «Olaizolak —esan zuen Escudero— gure musikaren iturburua darama beregan. Gure Herriaren sustrairik sakonena Olaizolaren izpiritu garbian errotuta dirudi. Jaun haundia dugu Olaizola, bera bezala nahi genukeen arraza baten eredu. Jose Olaizola Gabarain bezala, nahi genuke arraza osoa». Eta garai hartan Donostiako Kontserbatorioan Armonia eta Konposaketako katedratiko zen Escudero, *Oleskari Zarra* osatzen zuten poema sinfonikoaren indarra eta giroak deskribatzeko gaitasuna txalotu zituen. «Zorionak biotz biotzetik. Beti adiskide. Francisco Escudero», zioen musikagileak Olaizolari bidalitako gutunean.


Oleskari zarra kanpai hots xehe batek inspiratu bazuen, beste lan batzuetan Josek txikitzen bere jaiotetxean bizitako esperientziek piztu zuten bere musika sortzeko indarra. Honela gertatu zen, esaterako, *Amets urdiña* izeneko lanean. Oraingoan, haurtzaroan amak kantatzen zizkion abestiak izan zitzaizkion inspirazio iturri. Eta, seguru asko, lagu-



«Sorgiñeta»rako Josek eskuz idatzitako azala



1956. urtean «Oleskari Zarra»rentzat eginiko kartela



«Oleskari Zarra»ren hasieran Josek idatzitako oharra

narteko jaietan sentitutako alaitasuna izan zela Joxerentzat *Aupa mutillak!* (gaur *Eusko, euskotarrak gera...* eta *Bilboko Athletic*-en ereserki bezala ere ezagutzen duguna!) txistu biribilketa ezagunaren inspiratzaile. 1905ean Zarauzko batzokiaren inaugurazioan estreinatu zuen, hain zuzen ere, aipatu pieza alaia. Argi dago, beraz, sentimendu guztiak —alaitasunak, herriminak, Naturaren miresteak, tristeziak eta gizakiok egunero bizi ditugun oso sentimendu desberdinak— azaleratzeko

bidea aurkitu zuela Olaizola poetak, hitzen eta doinuen bidez. Eta Jose kristau zintzoa zenez, bere obrarik zainduenak bere Jainkoari eta honen Amari eskaini zizkion —batez ere «bere» Santa Maria elizako Koruko Amari—, batzuetan herri-kutsua zuten doinuen bidez eta, beste batzuetan, gregoriano kutsua zuen «euskal» musikaren bidez. Atal honetara ere geroxeago itzuliko gara.

Halere, aurrera segi aurretik, argi utzi nahi genuke Jose erantzukizun handiko pertsona «serioa» izan arren ez zela inolaz ere pertsona triste eta iluna izan, gizon baikor eta umoretsua baizik. Lagunarteko giroa oso maite zuen eta ez zitzaion txantxak egiteko gogorik falta. Behin batez, esaterako, Berastegiko herrian, Josek eta honen lagunek bertoko «astronomo autodidakta» bat ezagutu zuten eta gizon hark bere «zientzian» ezarritako interes handia ikusita, txantxa bat egin behar ziotela otu zitzaion. Beraz, hizki ederez idatzitako «diploma» bat idatzi zuten, zeinetan Berastegiko mutilzahar astronomoaren merituak goratzen eta baieztatzen ziren. Eta titulua «zientzigionari» behar bezala emateko, Jose Olaizola dotore jantzi eta okasiorako asmatutako *Ereskovsky* «zientzilarri» ospetsuaren papera eginik Berastegiko «astronomoari» aipatu «diploma» eman zion, lagun taldearen txalo beroen artean. «Omenaldia» hain zirudien benetakoa non Donostiako *El Día* egunkarian zeremoniaren berri ere eman zuten.

Euskaltzain laguntzaile

Oñatin lehen aldiz 1918an ospatutako «Congreso de Estudios Vascos»ek oso eragin handia izan zuen euskal kulturaren alorrean. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Al-
dundien laguntzak indar berriak eman zizkion gure herriaren kulturari. Oñatiko kongresuaren uzta oso oparoa izan zen, fruiturik ederrenetakoak Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindiaren sortzea izan zirelarik. Erakunde berriak, Euskal Herrian zein gure herriaren mugetatik kanpo euskararen inguruan ari ziren filologoak eta zientzialariak bildu zituen, hasiera-hasieratik. Olaizolak lehen momentutik egin zuen bat Kongresuak sortutako ekimenekin eta bere idazle eta musikari lana euskal kulturarekin inplikatzeari gain, musikari buruzko hitzaldiak eta txostenak ere landu zituen urte luzez. Oraindik ere 1948an Miarritzen egin zen Eusko Ikaskuntzaren Kongresuan, Jose Olaizolak bere txosten bat aurkeztu zuen, Euskal Herrian musikaren inguruan eman behar zen heziketaz tratatzen zuena, hain zuzen ere.

Jose Olaizolak gure hizkuntzaren alde egin zuena ezagutu eta eskertzeko, Euskaltzaindiak laguntzaile titulua eman zion 1965ean. Tituluak hala dio, hitzez hitz: «Euskaltzaindiak Joxe Olaizola jauna euskeraren alde orain arte egin dituen lanen esker-erakutsiz eta gerokoen pizkarri, laguntzailletzat artu du. Bilbon, 1965eko iraillaren 24an».




Santa Mariako organoaren hoditeria


Jose Olaizolak lan asko euskaraz idatzi bazi-tuen ere, ez da orain arte lan horiek osorik bilduko lituzkeen bildumarik egin. Oso lan zabal izango zen, zalantzarik gabe. Pentsa dezagun berak sortutako musikarentzat idatzitako testuez gain, Olaizolak bertsoak eta poesiak ere idatzi zituela. Tamalez, gaur arte ez dago oraindik bere lanari buruz ikuspegi orokorra eskainiko lukeen obrarik, Olaizolaren familiak Jose zenaren bizitza eta obra ezagutarazteko oso meritu handiko ekimen garrantzitsuak eta interesanteak bultzatu baditu ere. Bada, beraz, eremu horretan lan egiteko aukerarik.

Usandizaga, Jordá...

Bere bizitzan, musikaren munduan ari ziren edo arituko ziren lagunak egiteko aukera izan zuen Jose Olaizolak. Donostian Josek izan zuen ikasleetako bat, esate baterako, Enrique Jordá izan zen, hots, XX. mendearen erdialdean oso orkestra zuzendari famatua izan zena. Josek berak idatzi zuenez, Donostiako Alde Zaharreko Puyuelo kalean Jordá familiak zuen etxebizitzan edo eta Santa Mariako organoan eman zizkion musika klaseak Enriqueri. Honez gain, zenbait kasutan, Imanol Joserren semea eta Enrique izan ziren Olaizolak Cavaillé-Coll organoan izan zituen laguntzaileak, bi mutikoek musika tresna erraldoiaren erregistroak Joserren aginduak segituz aldatzen zituztela.



Bera baino lau urte gazteagoa zen beste lagun musikari bat izan zuen Olaizolak Donostian: Jose Mari Usandizaga konpositorea, hain zuzen ere. Bion arteko laguntasuna hain zen handia non Usandizagak bere *Mendi Mendiyan* pianoan jo zuen Olaizolarentzat, aipatu obra oraindik bukatzeke zegoenean. Josek hunkituta entzun omen zuen Usandizagaren lana eta, ondorioz, *Mendi Mendiyan* sartuta dagoen *Ave Maria* Olaizolak berak estreinatu zuen Santa Mariako bere organoan. Olaizolak idatzi zuenez, «Usandizagaren *Mendi Mendiyan* eta Guridiren *Amaya* eta *Mi-rentxu* euskal antzerti lirikoaren gailurra izanik, 1916an korronte horrekin bat egin nahi izan nuen, *Oleskari Zarra* nire lanaren bidez». Baita bere helburua lortu ere, musikan adituek bat baitatoz aipatu lau obren goiko maila azpimarratzean.



Euskaltzaindiak bere «Laguntzaile» izendatu zuen Jose Olaizola


Olaizolaren Gabon kantarik ezagunenetakoa da «Artzayak»

Euskal Gregorianoa

Eliz giroan aritzeak laster elizarako musika konposatzera bultzatu zuen Olaizola. Gainera, erlijioaren mistizismoa oso egokia zitzaien Joseren inspirazioari. «Elizarako» musika konposatzerakoan, halere, ez zen Jose erabat libre eta Elizaren Liturgiak zehaztutako mugen barnean mugitu behar izan zuen. Noizik behin, berak inspirazio iturriaren oladarrez konposatutako musika erlijiosoa Liturgiaren arduradunek markatutako mugetara egokitu behar izan zuen Josek. Gehienetan, ordea, garai hartan euskal liturgiaren alde ari ziren elizgizonek inolako zalantzarik gabe onartzen zuten Olaizolak konposatu eta proposatu musika. Izan ere, euskal elizgizonek —Euskal Herritik urrun misiolari zen Migel Anjel Olano apezpikuak edo eta Vatikanoko *Sagrada Congregazione dei Riti* era-kunde garrantzitsuan oso indar handia zuen Jose Sebastian Laboak, besteak beste— zorionik beroenak eman zizkioten Joseri. «Zu izan zera, Joseba —idatzi zion Olano apezpikuak— euskerako Mezari musika ezarri diotzuna... Len gure euskera ain oinpetua, orain ain goraldua. Len, ezertxorako balio ez bazun bezala, eta orain liturgia eginik. Euskeraren etxaia —zioen Olanok— ixildu egin bear orain, Elizak artu baitu bere babesean.» Laboak, bere aldetik, Olaizolari idatzitako gutun batean, *Christus* eta *Eskual Mezaren* bertuteak azpimarratzen zituen, bereziki Joseren lanean Laboak nabari zuen «erritmo



1966ko prentsan Olaizolari buruz euskaraz idatzitako berri bat




Jose Olaizolak «euskal gregorianoa» landu zuen

gregoriano askea, obraren euskal nortasuna» eta batez ere Olaizolaren «obraren herrikoi-tasuna, hornidura harmonikoak gure musika herrikoiaren xalotasuna erabat errespetatzen baitu, aberasten duen une berean».


xx. mendeko 60. hamarkadan Penintsulan konposatzen ziren lan gregorianoak biltzen zituen Ildefonso Maria Temprano karmelitak Olaizolaren konposizioen berri izan zuen eta bere bildumarako obraren bat eskatu zion Joseri. Honek berehala *Ave Maria* bat bidali zion gregorianistari eta, antza, izugarri gustatu zitzaion bilduma egileari. «Lan liriko-erlijioso aparta da benetan, oso distiratsua —idatzi zion Tempranok Joseri— eta bere bide melodikoa oso orijinala izan arren, gregorianoaren gai batzu gogora arazten ditu, oso argi, zenbait pasartetan.» Badirudi Tem-

prano gregorianista txundituta eta pozik geratu zela Olaizolaren euskal gregorianoa entzun zuenean.

Elizarako «euskal» musikaren alorrean ere, Olaizolak Belokekin izan zuen harreman herstua ere apiatu behar da. Jose Olaizolaren lagun onenetariko bat Donibane Lohitzunen jaioa eta Belokeko abadiako buru zen Xavier Diharce *Iratzeder* euskaltzalea izan zen. Berak konposatutako salmoak berehala pasatzen zizkion Olaizolari, honen iritzia oso balio handikotzat hartzen baitzuen. Eta Olaizolaren *Eskual Meza* Belok-eko abadiak berak argitaratzeaz gain bertoko lekaideen koroak sarritan kantatzen du. Diharce abadeak Olaizolari idatzi zioenez, Baionako apezpikuak oso begi onez ikusi zuen Belokeko arduradunen eta Olaizolaren arteko elkar laguntza.



Jose Luis Ansorena, «Eresbil»eko fundatzaile eta zuzendaria



Imanol Olaizola, bere aitari buruz idatzitako liburua esku artean duela

Txistularien alde

Txistularien alorrean ere musikari hauek elkartzearen alde azaldu zen beti Olaizola.

Josek bere haurtzarotik ezagutu zuen bera bezala hernaniarra zen Isidro Ansorena txistularia, Josek baino bederatzi urte gutxiago zuena. Isidroren semea den Jose Luis kaputxinoak Olaizolak txistuaren eta txistularien alde eginiko lan handia baieztatu digu, Isidrokin batera txistularien estatusa eta lana igorazteko saiatu baitzen buru-belarri. Jose Luis Ansorenak pertsonalki ezagutu zuen Jose. «Oso pertsona atsegina zen Olaizola —esan zigun Jose Luisek—, beti laguntzeko prest eta oso solaskide ona. Bizitzak kolpe asko eman bazizkion ere, oso baikorra zen, optimista eta, batzutan, euforikoa.» Erretereriako *Eresbil*-en arduradun eta sortzaile bezala, Jose Luisek ondo ezagutzen du Olaizolaren lana. «Hirurogeiko hamarkadan oraindik Erretereriako koralerako obrak ere eskatu nizkion Joseri, eta Olaizolaren musika korala oso ongi baloratuta dago.»

Jose Luis Ansorena eta Isidroren biloba den Jose Inazio Ansorena bat datoz Jose Olaizolak Donostiako zinegotzi bezala bertoko txistulari bandaren alde eginiko lan izugarria azpimarratzerakoan. «Josek Donostiako banda salbatu zuen, Isidro nire aitaren bidez», esan digu Jose Luisek, «eta nire aitaren hitza Jainkoaren hitza zen Olaizolarentzat, txistu kontuetan». Gainera, Isidrok eta Josek ere *Txistulari* aldizkaria suspertu eta indarberritu zuten. Bere aldetik, Jose Inaziok Olaizolaren «sentsibilitate izugarria» azpimarratzeaz gain Joseren musika sarritan nagusitzen den nostalgia edo tristezia agian «askotan galtzaile izan den» herri baten fruitu izan zitekeela, esan zigun.

Olaizola «musikaririk euskaldunena» bezala definitu izan dutenez, gai honi buruz duten eritzia eskatu diegu aipatu Ansorenatarrei. Jose Luis zein Jose Ignazio bat datoz Olaizolaren «euskalduntasuna» ezagutzerakoan. «Egia da —esan zigun Jose Luisek— Jose Olaizolaren musika euskalduna eta, seguru asko, euskaldunena dela. Honek ez du, halere esan nahi beste moduko euskal musikarik ez dagoenik, hori euskal musikaren definizioarekin lotuta baitago.»

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Olaizola familiari
- Ansorena familiari

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	I.a, 2005eko abendua
Ale-kopurua:	3.000
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Fotokonposizioa:	R.G.M., S.A.
Inprimaketa:	R.G.M., S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-2380-4 (Lan osoarena) 84-457-2382-0
L.G.:	BI - 3289-05

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística